

## LATINA II / LATÍN II

### A Multzoa

**1. galdera:** Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.

- Gehienez, 5 puntu.
- Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta itzulpenak erakusten duen latinaren gramatikaren ezagutza.

**2. galdera:** Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.

- Gehienez, 1 puntu.
- Analizatu behar da esaldi osoaren egitura nagusia; hau da, identifikatu behar dira perpausa osatzen duten sintagmak eta mendeko perpausak (horrelakorik balego), ez nahitaez sintagma barruko osagaiak.

**3. galdera:** Adierazitako hitzen analisi morfologikoa.

- Gehienez, 1 puntu.
- Kasuaren arabera, izen-jokoaren (generoa, numeroa eta kasua) edo aditz-jokoaren (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza) bereizgarriak zehaztu behar dira, betiere kontuan izanda hitzak testuinguru horretan duen balioa (adib.: zer da «hoc» aurrean dugun testuan, eta ez zer izan daitekeen «hoc» testuingurua kontuan hartu gabe).

### B Multzoa

**1. galdera:** Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Latinaren lexikoak gaztelanian edo euskaran izan duen eragina.

- Gehienez, 1 puntu.
- Hauek balioetsiko dira: kultismoen eta ondare hitzen artean bereiztea (gaztelaniaren kasuan) eta hitz bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena (bi kasuetan).

**2. galdera:** Aukeratutako esamoldearen esanahia azaltzea eta hura erabilita 20-50 hitzeko testu bat sortzea.

- Gehienez, 1 puntu.
- Hauek balioetsiko dira: batetik, aukeratutako lokuzioaren eta jarri zaion testuinguruaren arteko egokitzapena, hala nola testuaren beraren zuzentasuna eta kohesioa; bestetik, erabilitako lokuzioaren esanahiari buruzko azalpena.

**3. galdera:**

— **a aukera:** *Miles gloriosus*etik ateratako pasartea.

- Gehienez, 1 puntu.
- Balioetsiko da: obra irakurri izanaren frogia; iruzkinaren zuzentasuna eta kohesioa.

— **b aukera:** Latindar literaturaren historiari buruzko galdera.

- Gehienez, 1 puntu.



- Ikasleak galderan enuntziatzen den kontzeptua definitu behar du, eta kontzeptu horren barruan sartzen diren egile eta obra garrantzitsuenak aipatu.

**OHARRA:** Latinezko hiztegi batzuek gramatika-gehigarri bat izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, etab.). **Zilegi** izango da aipatutako gehigarria erabiltzea, nahiz hiztegiaren orrialdeetan dagoela, nahiz liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak **bi hiztegi** erabil ditzake batera: batetik, latina-gaztelania, eta bestetik, latina-euskara.